



Derio
Udaleko Aldizkaria



EDUKIA / CONTENIDO

Pertsonak gara eta ez zenbakiak	01
Zortearen gutizien menpean	01
Derio Xake Taldea: Ajedrez en estado puro	02
Deriok 9 tona elikagai eman ditu Sahararentzat	02
El crecimiento vegetativo en Derio es positivo	02
Plaza eta kale berria	02
Jata-Ondo visitó Agenda Local 21	02
Salida Disneyland París	02
Bizkaiko Parke Teknologikoa 2. Herri Lasterketa	03
Nagusientzako ikastaroa	03
Tempo di Martxa! Ilega a Derio	03
Parte Hartuz diagnóstica a nuestros jóvenes	03
El luto oscurece el futuro del Derio	03
Agate Deunaren ohitura helburu on batentzat	03
Elkarrizketa / Entrevista: Timi Cué Allende	04
San Isidro Labrador eliza	04
Prest al daude mozarroak?	04
Eskolan izena emateko epea irekita	04

Pertsonak gara eta ez zenbakiak

Las características de la población delatan al pueblo

Herri eta hirien historia askotan argazkietan erakusten da: duela urte batzuk leku bat nolakoa zen eta gaur egun nolakoa den. Hala ere, horrek garrantzitsuena uzten du kanpoan, hots, leku horietako pertsonak, lekua bera aldarazten dutenak.

Derion horixe egin nahi dugu gaur egun: nor eta nolakoak garen jakin nahi dugu. Azken etxebizitzaren sustapenei esker, bost mila biztanle baino gehiago bizi dira Derion, eta, horrela, gutxi barru udalerraren kategoria igotzeko eta abantailak eta dirua lortzeko aukera izango dugu. Bost mila derioztarretik gorako eroldari begiratu gero, hamarren bat inguru 65 urtetik gorakoa dela nabarmentzen da, eta horrek, hasieran, datu gehiagorik gabe, ikaratu ahal gaitu. Hala eta guztiz ere, badago beste datu bat horren aurka: azken bost urteotako hazkunde begetatiboa positiboa izan da, jaiotzak gehiago dira heriotzak baino, alegia. Hortik ondorioztatzen dugu Derioko bizi-kalitatea ona eta atsegina dela, Derion bizi garenontzat, behintzat.

Biztanleriaren piramidearen goialdea (maila bakoitza adin-talde bat da) zabalegia da (biztanle zaharrenak) baina urtez urte piramidearen behealdea gero eta zabalagoa da eta halaxe erakusten dute haurtzaindegiek eta ikastetxeek. Hortaz, Derioren ibilbidea ezarrita dago. Nolakoak izango gara hamar, hogeitau hogeita hamar urteren buruan? Ziur aski, biztanle-kopurua aldatuko da, baina funtsean berdinak izango gara, azken batez, udalerrari bizitasuna ematen diogun pertsonak bezalakoak. ■

Las cifras nos delatan. Ahondamos siempre en la historia, en el poso que han dejado nuestros predecesores. Analizamos nuestro entorno –tanto geográfico como social– y llegamos a conclusiones que nos dan un esbozo aproximado de lo que somos. Pero los números cantan: nacen unos, mueren otros, la mayoría llega a cursar estudios superiores, la formación profesional también está presente, el año más prolífico de nacimientos fue el 65 y el menor el 96. Aquí no caben interpretaciones sólo cruzar datos con las poblaciones cercanas, con los años precedentes y sentarse para diseñar el mejor Derio posible en los próximos años. ¿Que Derio va a crecer de forma significativa? Pongamos remedio. Conociendo los datos de edificaciones y posibles nuevos vecinos podemos presuponer unas necesidades futuras en cuanto a equipamientos sociales, aparcamientos, servicios, centros educativos, residencias... He aquí la solución a lo que se nos avecina. Los políticos, los agentes sociales más implicados o los integrantes del foro Agenda Local21 son conscientes de que hay que ir diseñando el futuro, no basta con ir parcheando los problemas presentes. Es dar un paso más, abrir nuestras miras para proyectar el pueblo más habitable. Hagamos de la evolución un paso no traumático, recorramos el camino de la mejor manera. Es la inapelable crudeza de los datos la que revela nuestras necesidades. Sólo cubriendo las necesidades de todos y cada uno de los que conformamos nuestro pueblo podemos ir más allá. El camino se sigue haciendo, el cómo lo recorramos depende de nosotros. ■

Zortearen gutizien menpean

El último sorteo de pisos cambió la vida de 100 derioztarras

La cita era a las diez de la mañana. Una hora antes algunos madrugadores rondaban el frontón municipal, caras de sueño y también de ilusión; para muchos los pisos a sortear eran la llave de su independencia, para otros la liberación de los hijos "porque si no es por cosas así no se pueden ir de casa..."

Zozketa hasi da. Ezarritako ordutik minutu batzuk igaro direnean, zozketa argi eta behar bezala garatzearen fede emango duen mahaia eratu da. Derioko alkateak azaldu du zenbat eta noiz hasi behar duten ordaintzen zozketan sarituak suertatzen direnek. Tentsio handia eta adi-adi daude guztiak. Auzokide batzuk mahaira hurbildu dira bola guztiak daudela egiaztatzeko eta orduan hasi dira bolak ateratzen; lehenengo eta behin, kupo berezietakoak, eta, bigarrenik, zenbakien zozketa hutsa.

Lehenengo bolak atera dituztenean, har-

mailetan isiltasuna zen nagusi, eta denborak aurrera egin ahala, tentsioa eta alaitasuna ere areagotzen ziren: "neu naiz, neu naiz, neu naiz!" oihukatu zuen andre batek bere izena eta zenbakia ikustean. Bikote batzuk eta zenbait neba-arreba ere pozarren zeuden bie suertatu zitzaizela jakitean. Goizeko hamaika eta erdiak inguruan kupo orokorreko 87 zk.ko bola (azken pisua) atera zuten, eta horrekin batera derioztar batzuen ilusioak desagertu ziren.

Etxebizitza librea erosterik ez dutenek, 2007ko amaierako BOEren zozketara arte itxaron behar dute; etxebizitza horiek dagoneko adostuta daude Eusko Jaurilaritzaren eta udalaren artean.

Sarituak suertatu direnek milaka zenbaki dute buruan jiraka. Zortea horrelakoa da; batzuk zorionekoak izan dira, eta beste batzuk ez. ■



Gradas a rebosar para un sorteo limpio, avalado por vecinos que ejercieron de testigos

“**Zozketak aurrera egin ahala, tentsioa areagotu egiten zen**”



Ainara Aurrekoetxea

Para Ainara, que se enfrentaba a sus 23 años a su primer sorteo de vivienda, esta ha sido la gran noticia del año al ver sus sueños colmados en forma de una vivienda tasada. No las tenía todas consigo "éramos

muchos para pocos pisos, pensaba que no me iba a tocar", pero al final ha caído la lotería en forma de vivienda para amigos, primos y gente conocida, "será un barrio con buen ambiente, totalmente", lástima que no hubiese pisos para todos.



Alberto Sánchez

Alaitasuna eta nolabaiteko beldurra: Albertoren sentimenduak zozketaren ondoren. Zoritxarrez ez zegoen denontzako pisurik. Etxebizitzaren prezioetan azken urteotako goranzko


joera erota dela eta, ahalegin handiak egin behar izan ditu berak bakarrik bere etxe berria ordaintzeko. Orain, etxea zentzuzko prezioan erosteak lasaitasuna ekarri du bere bizitzara, eta gurasoentzat ere bai.



Eneritz Amondarain

Hogeita hamar urtetik gorakoa. Eneritz zozketaren eguna iristeko irrikan zegoen, baina, azkenean, ezer ere ez. Beste inoren etxean alokairuan bizitzeko ohituta dagoen arren, fase

berriari ekiteko une egokia zela onartzen du. BOEren hurrengo zozketak egin arte itxaron behar du, jakin baitaki etxebizitzaren salmenta librea ez dagoe bere eskura, eta "gaur egun ez da erraza etxebizitza edukitzea".



Joseba Romero

Llegará y besar el santo, primer sorteo y pleno. La bola con su número tardó en salir y la alegría si cabe fue más intensa. Reconoce que no es el chollo que tantos pensaban, son muchos los miles de euros a pagar, nada fácil. La distancia de su próxima vivienda al centro, donde viven sus padres, no le resta importancia al notición de por fin independizarse "y así hacemos algo de ejercicio", sentencia. Tres años faltan y ya ha empezado a ponerse las pilas.

Derio Xake Taldea: Ajedrez en estado puro

Duela bederatzi urtetik kirol horrek erreferentea du Derioko elkartearen



nació Derio Xake Taldea. Un club con sede en nuestro pueblo pero que acoge a gente de otras localidades como Basauri, Getxo, Bilbao y Mungia; en total y en la actualidad son trece personas las que conforman la única asociación de estas características en Txorierrri.

Las actividades en que participan a lo largo del año son continuadas, como la Liga de Bizkaia de Ajedrez tanto por equipos como individual (uno de sus miembros incluso se encuentra en la máxima categoría).

Derio Xake Taldea y el Gazteleku, una unión nada casual. Como ha ocurrido con otros grupos de nuestro pueblo la Asociación de Ajedrez también tiene su germen en este espacio juvenil. Hace nueve años y a raíz de una actividad relacionada con este deporte,

Sin embargo, hay dos días al año especiales en este grupo. Por un lado la festividad de la Merced, patrona de las personas privadas de libertad. En este día cada año acuden a la cárcel de Basauri a organizar un pequeño torneo que se convierte en algo más que deporte, es una

labor social en la que tanto los miembros de la asociación como los presos se enriquecen.

Bestalde, nabarmentzekoa da San Isidro Nazioarteko Xake Txapelketa, bertan Euskadiko eta atzerriko parte hartzaileak baitaude. Xakeaz hitz egitean, Derio herriaren izena mundu mailan entzuten da. Elkartearen web orria funtsezkoa da txapelketan, izen-emate gehienak interneten bidez egiten baitira.

Elkarteak gero eta jokalarri gehiago izan nahi ditu, eta, horretarako, leku bat eskatzen dute, xakera hurbildu nahi dutenak bildu ahal izateko. Bitartean, www.derioxaketaldia.org web orria edo derioxaketaldia@gmail.com helbide elektronikoa daude edonoren eskura. Xake mate. ■

“

Derio Xake Taldea era horretako talde bakarra da Txorierrin

”

Deriok 9 tona elikagai eman ditu Sahararentzat

Su destino son los campos de refugiados de Tinduf

Sahararen aldeko III. Euskal Karabana prest dago. Urtez urte gero eta jende gehiagok hartzen du parte, eta Deriok ere bere harri-koskorra jartzen du. Derioztar askok eta herriko elkarteek leku zehatzetan jarri zituzten 230 kilo azukre, 110 kilo atun, 231 kilo dilista, 252 kilo arroz eta 155 pakete konpresa. Guztira 823 kilo elikagai eta higienarako gauzetan, egun batzuetan behintzat Tinduf-eko errefuxiatuen bizimodua errazteko.

Gure herrian, José Ramón Elorriagak sustatu du ekimena eta poz-pozik dago derioztarrek erakutsi duten elkartasunagatik; honenbestez, egindako ekarpena eskertu nahi die guztiei, datorren urtean gehiago eta hobeto egingo dutelakoan. ■

El crecimiento vegetativo en Derio es positivo

Udalerri tradizionala da eta gehienok familian bizi gara



Gaur egun oso ohikoa ez bada ere, Derioko hazkunde begetatiboa positiboa da. Zer esan nahi du horrek? Jaiotza gehiago daudela heriotzak baino.

Hay que señalar que el número de nacimientos no es muy abultado, en torno a los 35 en los últimos ejercicios. Si miramos el histórico, 1996 fue el de menor número de bebés, únicamente 26, y sólo se superaron los 100 nacimientos en el año 1965 con 112. Desde entonces según datos del Eustat (Instituto Vasco de Estadística), Derio nunca ha vuelto a dar la bienvenida a más de un centenar de vecinos recién nacidos. En el otro lado de la balanza del crecimiento vegetativo está el número de muertes, también significativamente bajo, lo que nos ha permitido seguir con saldos positivos.

Si miramos el censo por sexos, las diferencias son pocas y hombres y mujeres tenemos casi el mismo peso en la población, siendo medio centenar más las mujeres. En cuanto al análisis del núcleo familiar en el que vivimos podemos decir que Derio es bastante conservador aún: en torno al 99% de nuestra población, casi todos, vivimos en alguna de las casi 1800 familias que componen nuestra locali-

dad; sólo un 0,7 por ciento de esta tiene convivencia colectiva con otra gente a la que no une un vínculo de sangre o casamiento. A su vez, cada una de esas familias la conforman 2,9 personas, y en cada casa reside una media de 1,2 hijos, datos similares al resto de Euskadi.

Zenbaki gehiago? Asko eman badaitezke ere, hona hemen zenbaki adierazgarri batzuk: hiru derioztarretik batek euskaraz hitz egiten du, Derioko azalera 7,5 kilometro koadrokoa da, 2.500 ibilgailutik gora daude... ■

- 1996an 26 ume baino ez ziren jaio
- Derioko familia-eredua 3 pertsonakoa da.
- Etxebizitza bakoitzean 2,9 pertsona bizi dira eta 1,2 seme-alaba
- Bost mila biztanle baino gehiago gara, hamarren bat 65 urtetik gorakoak
- Datu historiko bitxia: 1965etik Derion urte bakar batean ez dira jaio 100 ume baino gehiago

Plaza eta kale berria

Anboto eta Euskalerrria obretan

Hirigintzako obrei dagokionez, hauexek dira egindako azken egokitzapenak: Uribe parkera iritsi aurretik, San Miguel inguruneko azken plaza eta udaletxe aurreko kalea.

La Plaza Anboto cambiará por completo su diseño final acordado, pasando a tener una nueva y definitiva configuración, a petición vecinal –con aceras más anchas y un parking en batería– Se recupera la forma rectangular y además se amplía su espacio.

La calle Euskalerrria simulará un adoquinado y verá elevado su piso hasta equipararse a las aceras de las calles peatonales adyacentes. Dos motivos han sido determinantes para el cambio: por una lado el adecentamiento, por otro la circulación: evitar las dobles filas y promover aminorar la velocidad de paso de vehículos. Igualmente será más sencillo para los viandantes el paso por esta calle camino del tren, euskaltegi o autobús. ■

“

Gutxi barru itxura berria ingurune bietan

”



I

Jata-Ondo visitó Agenda Local 21

Derio Bizkaiko Landa Garapenerako Elkartearen dago.

Tokiko Agenda 21
Agenda Local 21

Toki Agenda 21 en urtarileko Foroan Jokin Etxebarria Jata-Ondo elkartearen kidea egon zen gonbidatuta. Bizkaiko Landa Garapenerako Elkartek horrek izenak berak adierazten duena baino gehiago egiten du, eta lehen sektoreari laguntzeaz gain, turismo eta komunikazioen arloan ere laguntzen du. Ildo horretatik, gure inguruneko naturari buruz informazioko panelak jarri dira gure udalerrian eta G.R. 280 izeneko ibilbidea eratzen lagundu dute. 126 km-ko ibilbidea Deriotik eta Uribeko eskualdeko gailur batzuetatik igarotzen da.

Horretaz gain, Etxebarriak bere iritzia eman zigun landa esparruari buruzko gai batzuen inguruan. Landa arloan ez dira hain gutxi, hiritarrek uste duten moduan. Halaber, errentagarria ez delako ustea ere ez da egia; kontua da ez zaizkigula gustatzen aparteko ahalegina eskatzen duten lanak, arlo horretan gertatzen den bezalaxe. Derioko Mendikoi eskolaren garrantzia aipatu zuen, oso erakargarria baita lurra lantzetik bizi direnentzat. ■

“

Jata-Ondo es artífice de la ruta que une toda la Comarca de Uribe, el llamado G.R. 280

”



Salida Disneyland París

Como refleja este cartel elaborado por el Área de Cultura del Ayuntamiento, el Parque Temático de Disneyland París es el destino elegido para realizar el viaje subvencionado en este 2007. La ciudad de la luz, la del amor o la de la diversión en familia. La capital francesa un lujo siempre pero ahora a buen precio. ■


Bizkaiko Parke Teknologikoa 2. Herri Lasterketa

Martín Fiz y Javier Conde homenajeados

Otsailaren lehenengo larunbatean zaletuak, derioztar batzuk barne, eta profesionalak Parke Teknologikoan bildu ziren lasterketan parte hartzeko. Javier Condek, Martín Fizek eta Virginia Berasategik ere parte hartu zuten. Emakumeetan, Sondikakoa izan zen garailea eta gizonen artean, Bouzza El Mastati txapeldunak 3 segundoko tartez garaitu zuen Martín. Atletismo lasterketa gure herri-
tik igaro zen neguko arratsalde eguzki eta atsegin batean. ■



Aficionados y profesionales se mezclaron en esta 2ª edición de la carrera que discurrió en parte por terrenos de Derio



Nagusientzako ikastaroa

Interesantes Cursos para nuestros mayores



Serán de Memoria los jueves y de Movimientos suaves y prevención de Artrosis los martes. Cursos interesantes a la par que necesarios para este final de invierno. Las tardes de febrero y marzo se llenarán de actividad en el Nagusien Etxea. La gente interesada puede apuntarse ya en el local de 5 a 7 de la tarde. ■

Tempo di Martxa! Ilega a Derio

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 25. urteurrena ospatu du Derion

Euskadiko Orkestraren musika-gela ibiltaria EAEko herrietatik egiten ari den bidaia-
ren lehenengo geldialdia Derion izan da. Donostian Derio hautatu zuten ekitaldiaren prentsaurrekoa eskaintzeko. Gela ibiltaria autobusez doa, aurrerapen teknologiko guztiak dituela, musika klasikoa eta sinfonikoa eta euskal musikagileak ere ezagutarazteko. Txikienek bertatik bertara ezagutu zuten musikaren bikaintasuna; musika ibiltari hori oso egokia da musika munduan hezteko eta musikagileen eta musika-tresnen mundu lili-
ragarrian murgiltzeko; eta hori guztia orkes-
trarik ospetsuenetako baten eskutik bere 25. urteurrenean: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. ■



Musika autobusez joan zen txikienek bihotzeraino



Parte Hartuz diagnostica a nuestros jóvenes

Partaidetzari buruz hausnartzeko analisisa

Urtebete lanean egon ondoren, azkenean emaitzak heldu dira. Batetik, UPV/EHUko graduondoko ikasleak, Partaidetzako Demokraziarako prozesuen bultzatzaileak, eta bestetik, Parte Hartuz, partaidetza sustatzeko ikerketa eta trebakuntzako talde gisa. Udale-
rrian gazte derioztarren partaidetzari buruzko diagnostikoa egitea da helburua. Anali-
saren oinarriak honako hauek dira: zer dagoen eta errealitatea nola sumatzen den. ■



Gazte parte hartzaileak, elkarte asko dituen herrian

Azkenean, Derioko gizarte agenteekin eta gazte askorekin batera arituz, lan handia eta interesgarria lortu da. Merezki du une batean gelditzea eta hausnarketa egitea. Gaur egun hausnarketarako ideia eta ondorio erabakigarriak izan behar ditugu, parte hartzeko prest dagoen gazteriak denontzako onurak ekar ditzan.


Urtarrilaren amaieran, gure txostena prestatzeko azken saioa izan zen. Gure zinegotzi gazteenak ere bertaratu ziren, eta terapia kolektibo moduan gazteria ordezkatzeko duten ahotsak entzun ziren. Gazteak inplikata daude eta inguruneaz kezkatutik bizi dira. ■

El luto oscurece el futuro del Derio

Zubieta presidentearen heriotza erabakigarria izan zen

Sabino Zubieta, Zubi – como se le conocía mayormente- volcó sus energías en estos últimos 30 años en el club de sus amores: el C.D. Derio. De entrenador en las categorías inferiores a miembro siempre destacado de la Directiva en todos estos años. El fallecimiento repentino de este vital personaje –ejemplo de implicación y amor al deporte- ha movido aún más si cabe los cimientos de nuestra institución deportiva más emblemática. ■

Deportivamente el equipo lleva una trayectoria ascendente envidiable y figura en las primeras posiciones de la clasificación de la



División Territorial Preferente. La gestión se torna en cambio complicada, son escasas las personas para repartir el ingente trabajo que requiere la gestión del club. José Ramón Imaz, segundo de a bordo, es determinante: "nunca el Derio estuvo en una situación tan delicada como hasta ahora, si no sumamos más apoyos la situación será insostenible, hace falta más gente". Entiende que la pérdida de Zubieta –enorme en el plano afectivo y personal- lo es igualmente importante para el Club. Las energías se desvanecen ante la falta de apoyos. ■

2006/2007 denboraldiaren bigarren erdialdea nahiko zaila ikusten dugu eta zuzendari eta ordezkariak biderkatzen dira metatutako lanari aurre egiteko. Datorren denboraldia zailagoa izango da, ahal bada Ordun buruzagi horiei laguntzea ezinbestekoa izango da bizirauteko. Behe kategoriak (gure harrobia) mantentzea ere zaila izango da eta klubaren jarraipena kolokan dago. ■

Ironikoa litzateke instalazio ireki berriak edo igoera hurbila, klubaren desagerpenarekin batera ospatuko bagenitu. Denbora ez dago gure alde. ■

Jokalariak atsekabetuta presidentearen heriotzagatik

Agate Deunaren ohitura helburu on batentzat

Como cada año Derio rindió honores a Santa Agueda en las vísperas de su celebración. Ipar Alde el sábado –a petición de los baserritarras- y Sutondoan tanto el domingo en su recorrido por todo el pueblo como el lunes en las residencias de ancianos. Ambos colectivos por una buena causa. Acciones benéficas en honor a la protectora de los niños, de las mujeres que tienen enfermedades de pecho y de los incendios en otros pueblos. Makila en mano y repitiendo en cada parada la canción dieron lustre a un pueblo que muestra su cara más amable en citas como esta. ■

Ipar Alde berriro protagonista Begoñan

Hilaren lehenengo astelehenean gure abesbatzak nagusitasuna izan zuen Begoñako Basilikan, Bizkaiko Abesbatzen XXXIV. Aste-
an. Bizkaiko abesbatza-musikan ezinbesteko hitzordua da, eta behin baino ez dute huts egin. Gure abesbatzaren 30 ahots baxuak entzun ziren eta gure herriko auzokideak ere izan ziren entzule gogotsuen artean. ■



Entrevista

Elkarrizketa

Timi Cué
Allende

Udaleko Kirol Teknikaria

Deriokoa ez bada ere, hogei urte baino gehiago daramatza bertan lanean, eta ondorioz, kiroldegiko "bihotza" dela esan daiteke. Lanagatik bizilagunekin harreman estua dauka, eta horregatik, Deriokoa balitz bezala sentitzen da.

¿Cuándo comenzó tu vinculación a Derio?

En Derio llevo trabajando desde el año 1984... Primero lo hice en la escuela con los chavales y después en los programas de gimnasia de tercera edad y adultos. Posteriormente, en el año 91, comencé a trabajar en el Derioko Udala Kirolegia, en el año de su inauguración.

¿Somos los derioztarras deportistas?

Creo que Derio se encuentra en un punto intermedio, hay capas de población que hacen mucho deporte y otras, al igual que ocurre en otros pueblos de similares características, son más reacias a utilizar instalaciones deportivas.

Derion urtero antolatzen diren kirol jardueretatik zeintzuk dira gehien gusatzatzen zaizkizunak?

Ekintza ugari burutzen ditugu: ibilaldi neurtua, zenbait torneo, Derio-Zamudio lasterketa, etab. Hala ere, nik oso gustuko ditut Derioko kirol taldeek eta bertan parte hartzen duten kideek antolatzen dituztenak. Antolatzaile hauen artean, Sabin Zubieta aipatu beharra daukat. Izan ere, gazteekin oinarriko kirola garatzeko eta mantentzeko lan egin du eta beti ongina hutsez.

Kanpotik etorritako bizilagun andanarekin kiroldegia txiki geratuko da?

Deriok baditu nahikoa instalazio eta kalitateko zerbitzu egungo eskaerarako. Baina aurrerantzean, erronka berriak hartu beharko ditugu araututako kirol jardueri dagokienez. Horregatik, kirolean ari zeko instalazio berriak behar izango ditugu (hiri-

bainuetxea, aisialdi eta osasun programak edota paddel eta tenis pistak) Derioko Udala Kirolegiko eta Kirol Saileko badakigu jakin hazkunde geografikoa dela eta, gure instalazioak handitu beharko ditugula. Honenbestez, aurtun, adibidez, instalazioen handitze lanaren bigarren aldiari ekingo diogu. Dena dela, hazten dauden guneak ere ezin ditugu ahaztu eta instalazio berriak egiteko orduan, bestelako aukerak ere kontuan hartu nahi ditugu.

¿Y hay algún proyecto que te gustaría ver terminado especialmente?

El proyecto más importante no es tanto el construir y dotar de nuevas instalaciones al municipio, algo que supone un gran esfuerzo económico para las arcas municipales, sino el desarrollo de programas que acerquen al ciudadano al conocimiento y práctica de una actividad deportiva lúdica y sana.



Timi Cué udal-igerilekuan

“
Laster kirol-instalazioak
handitu beharko dira
”

San Isidro Labrador eliza

San Cristobal Derioren landa izaerako sorreraren lekukoa da; San Isidro eliza, zalantzarik gabe, nekazaritzako gizartea hiri-gizarte bihurtzeko sinboloa da.



La iglesia de San Isidro se edificó en el año 1958. Su emplazamiento, cercano al cruce de las carreteras de Loiu y Mungia supuso el desplazamiento definitivo del centro de Derio, más próximo ahora a las principales vías de comunicación. En sus proximidades se construyeron también por aquel entonces los primeros bloques de viviendas (la actual plaza Aldekone) que conformaron lo que sería el primer Derio urbano. El nuevo templo fue edificado siguiendo el estilo neoclásico, pero con elementos propios del neorrománico. La iglesia está formada por un único edificio de planta rectangular, con una esbelta torre a su derecha, rematada por una estructura de forma piramidal, que acoge el campanario y el reloj. El pórtico de acceso está formado por tres arcos de medio punto, sobre el central un tímpano, de forma triangular, imprime sabor neoclásico a la fachada principal. Sobre este pórtico, tres arcos menores enmarcados a su vez dentro de un arco mayor de medio punto enriquecen el conjunto.

Ya en su interior la nave central, mucho más elevada que los laterales, que a modo de pasillos acogen diferentes tallas de Jesús y la Virgen. Algunas de estas imágenes formaban parte del Vía crucis que se celebraba en Semana Santa entre ambas iglesias. La nave aparece iluminada por la luz tamizada que entra a través de las vidrieras, bellamente decoradas. A los pies se encuentra su altar presidiendo el recinto sagrado. Este se encuentra situado bajo el ábside, aportando al templo un elemento propio del neorrománico. En lo alto la bóveda del ábside aparece decorada por bellos frescos con escenas de la vida de Jesús, imprimiendo personalidad propia al conjunto. Este elemento decorativo es común en iglesias contemporáneas a la de San Isidro, como lo son las de San Esteban de Etxebarri o Las Mercedes en Las Arenas que guarda cierta similitud con la de Derio.

Felix Vidaurrazaga Elomietta (1880-1958)


El conjunto formado por la iglesia, cine parroquial, casa cural y centro social no hubiese sido posible sin la aportación esencial de este insigne deriotarra, que emigró a las Islas Filipinas junto a otros también deriotarras como Jesús Larrabeiti Vidaurrazaga o Juan Aburto Vidaurrazaga que trabajaron en las plantaciones de caña de azúcar de la isla de Negros. Allí Félix Vidaurrazaga se dedicó con éxito a los negocios y fue su deseo dejar como legado a su pueblo natal el conjunto de la actual iglesia de San Isidro Labrador. En 1960 Derio en agradecimiento le dedicó un monumento, busto en bronce obra de Ricardo Iñurria.

“
Gutxi barru, San Isidro Labrador
elizaren urrezko ezteiak
”

conoceDERIOezagutu

Prest al daude mozorroak?

Ostirala, hilak 16, Derioko inauterien egun nagusia



Ez Inauterietako asteartean, ezta larunbatean ere, jaiegun tradizionalean aurreko ostiralean mozorrotzen gara Derion, armairu barruko jantzirik onenak atera eta mozorroturik irteten gara kalera. Egun berezia da eskolako umeentzat eta asteetan irakasleen laguntzaz egin dituzten mozorroak jantzita, kalejiran ateratzen dira goizeko 11etan. Ordubeteko geroago Herriko Plazan prest dago guztia ikuskizunez gozatzeko. Arratsaldean, 6etatik aurrera berriro kolorea eta musika frontoian, txokolate gozoz, umeak gauera arte gozatzeko. Kontuz! Ohar garrantzitsua: egun horretan dena eskatzen da, diskrezioa izan ezik.

Abierto el plazo de matriculación

Todos los interesados en matricular a sus hijos e hijas en la escuela pública de Derio o en el instituto pueden hacerlo durante la primera quincena de febrero. La cercanía y sobre todo la calidad en la enseñanza son los pilares de una educación que va a más, y es que año a año la escuela se está quedando pequeña. De momento, las matriculaciones, hasta el día 16 de febrero.

Telefono interesgarriak

DERIOKO UDALA	944 541 019
AYUNTAMIENTO	FAX 944 542 832
UDALTAINGOA	44 543 725
SERVICIOS SOCIALES	944 542 243
SUHILTAILEAK - BOMBEROS	944 541 540
GARBIGUNE	944 034 090
HERRI IKASTETXEA - ESCUELA	944 541 246
UDALSAREAK - AVERIAS DE AGUAS	944 873 187
BEHAGINTZA TXORIERRI	944 536 370
INSTITUTUA - INSTITUTO	944 543 258
EUSKALTEGIA	944 540 062
MANKOMUNITATEA	944 540 350
KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO	944 540 159
GAZTELEKU	944 540 469
NAGUSIEN ETXEA	944 540 763
KZ GUNEA	944 543 486
OSASUN ZENTROA CENTRO DE SALUD	944 543 004
TAXI DERIO	944 800 909

BEITU ALDIZKARIA
beitu@deriokoudala.net

Legezko Gordailua: BI-1377-04 Inprimatzea: Ediciones Beta

